

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko irailaren 13a. VIII. urtea. 2.271. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Joseba Otaegi bigarren gelditu da Gipuzkoako Aizkora Txapelketan

Tolosako Bedaio auzoan jokatu da Gipuzkoako maila nagusiko aizkora lehiaren finala; Gazte Mailako Aizkora Txapelketaren azken saioa Leitzan jokatu da, eta Eneko Saralegi herritarrek irabazi du **07**

Goibegi eraikineko enpresa gunea alokatuko duenaren bila dabil udala

Abaltzisketako eraikin berriaren goiko solairua enpresei zuzendutakoa da; beheko solairuan dagoen gimnasioak 35 erabiltzaile ditu **03**



Hainbat makina ditu Goibegiko gimnasioak. I. GARCIA

Ander Irizarrek irabazi du talo-egile onenaren saria

Aurreko urteetan baino arrakastatsuagoa izan da Plazaola partzuergo turistikoak antolatu duen Leitzako Talo Eguna **02**

→ Kontxako Banderaren hutsunea nabaritu da.

Getaria-Tolosako arraunlariek denboraldi osoan zehar lortutako banderak astindu zituzten herenegun, Tolosan egin zieten harreran. Kontxako Bandera preziatua lortu ez duten arren, denboraldiko trainerurik erregularrena izan da 'Urkabe'. **06**

Aizkardi, Oargi, Alpino eta Mendibil mendi taldeen irteerak asteburuan

Leitzakoek egun bateko irteera prestatu dute; gainerakoek asteburu osoko irteerak prestatu dituzte; osteguna bitartean izena emateko aukera dago **02**



Aizkardi, Alpino, Oargi eta Mendibil mendi taldeen irteerak, asteburuan

Uribarri-Ganboa, Pirinioak, Burgos edota Feysonciego eta Miravalgo arroiletara izango dira irteerak

Eneritz Maiz

Oporren ostean, asteburu honetarako mendi taldeek irteerak prest dituzte. Aizkardi, Alpino, Oargi eta Mendibil Mendi Taldeek antolatutako irteeretan izena eman daiteke.

Villabonako Aizkardi Mendi Taldekoek asteburu pasa antolatuta dute. Hilaren 17 eta 18an Pirinioetara irteera egingo dute. Larunbatean, Pont d'Espagnetik abiatu eta la Faixa tontorrera igoko dira (2664m). Jarraian, Respumoso aterpera jaitsiko dira. Igandean berriz, Arrieleko urtegiara abiatu eta Lavedan (2615m) portura igoko dira, beste gailur batzuetatik pasatuz. Ibilaldiak zazpi ordukoak izango dira gutxi gorabehera, eta 16 kilometro inguru egin beharko dira. Ibilbidea luzatzeko ere aukera izango da.

Izena emateko, 649 717 182 telefono zenbakira deitu beharko da 20:00etatik 22:00era edo Aizkardi Mendi Taldeko elkartera joan daiteke, hilaren 15era bitartean. Larunbatean, Olaederra kiroldegitik 05:30ean aterako dira.

Alpino Uzturre Elkartek hilaren 17 eta 18rako mendi irteera antolatuta du. Txangoak Burgos probintziako Pineda de la Sierra inguruan izango dira. Mencilla, San Millan eta Trigaza mendiak igoko dituzte.

Kultur tailerretan eta jabekuntza eskolan izen ematea zabalik dago

Ikastaro guztiak urrian hasiko dira, eta doan izango dira; aurten matrikula on line egiteko aukera dago

E. Maiz Tolosa

Kultur tailerretan eta jabekuntza eskolan matrikula egin daiteke. Ikastaro gehienak ikasturte osoarako dira. Urrian hasi eta ekainera bitartean luzatuko dira, eta guztiak doan izango dira.

Iazko ikasleentzako matrikula



Aizkardiko kideek, Frondiella mendia igotzeko aukera izango dute. HITZA

Irteera San Frantziskotik 06:30ean izango da. Bazkideek 45 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 50 euro. Izena emateko, bi modu daude: 943 65 27 89 telefono zenbakira deituz edo alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatziz.

Oargi Mendi Taldekoak hiru egun pasako dituzte. Hilaren 16, 17 eta 18an, arroilen jaitsierak egingo dira. Ostiralean, Tolosatik Saravillo herrira joango dira, eta bertako aterpetxean egingo dute lo.

Larunbatean Feysonciegoko arroila jaitsiko dute. Hiru edo lau ordutan. Arroila lehorra da, eta 50 metroko 3 rappel ditu. Igandean Miraval arroila jaitsiko dute, 4 edo 5 ordutan. Arroila honetan ur asko dago, eta ez du rappelik.

Mendi taldekoek ohartarazi dute, 50 metroko hiru rappel daukela, beraz, garrantzitsua eta be-

harrezkoa da rappelatzen esperimentzia izatea. Apuntatzeko info@oargi.org helbidera edo 688 698 642 telefono zenbakira deitu beharko da.

Uribarri-Ganboara

Leitzako Mendibil Mendi Taldekoek, igandean, BTT taldekoekin batera, Uribarri-Ganboara egingo dute irteera. Arabako urtegiaren inguruan egingo dute ibilbidea, eta oinez edo bizikletaz egiteko aukera izango da.

Igandean Oialde paretik 08:00etan aterako dira, autobusez. Itzulera, 15:00ak aldera egingo dute. Izena, Astiz edo Maimur liburu-dendetan edo mendibilaurrera@hotmail.com helbidera idatziz eman beharko da. Hilaren 15a, osteguna, baino lehen egin beharko da. Izena ematerakoan, oinez edo bizikletaz egiteko asmoa den zehaztu beharko da, garrantzitsua antolatzeke.

neko matrikula egin daiteke. Matrikula 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara egiteko aukera egongo da Kultur Etxeko bulegoan. Gainerakoan, 943 67 03 83 telefono zenbakira deitu beharko da.

Lehenengoz, matrikula on line egin daiteke, www.tlsbat.net orriko lotura honetan: http://tlsbat.net/index.php?option=com_rsform&view=rsform&Itemid=855&lang=eu (euskaraz), eta http://tlsbat.net/index.php?option=com_rsform&view=rsform&Itemid=855&lang=es (erderaz).

Bikotekidearen bila



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Oporraldi luzearen ostean, ohore handia da niretzat berriro zutabe xume hau zuen etxeetan, eskoletan, lantegietan izatea bi astean behin. Aurren ere, bizidunei eta bioaniztasunari buruz zertxobait irakatsiko dizuegu, poliki-poliki irakurleak ere zer esana izan dezan lehen ezezagunak ziren gaietan.

Kurtsu berri hau indar handiarekin hasteko, hona hemen bizidun guztiei milioika urtetan buruhauste ikaragarriak eragiten dizkigun gai bat: bikotekidea aurkitzea.

Belarrietarako nahiko gogorra den arren, bizidun guztien azken helburua, bikotekidea aurkitu eta ugalte da. Hau lortzeko, biziduna elikatu egiten da, garai egokiari itxoi ten dio eta bikotekidea aurkitu ostean ugaldut egiten da, gero... bere *misioa* bete ostean lasai hil daiteke!

Bikotekidea aurkitzearen esfortzu handiena ordea arrek egiten dute: emea bilatu, norberaren *ezaugarriak* erakutsi, emearengana hurbildu, eta zortea badu, eta emea ados badago... ugaldut. Arrak zortetik ez badu, eta emearek badio *kombentzitu* eta bizidun hauek adibidez armiarmak badira, emeak arra jan egingo du. Hurrengoari itxoingo dio, ea gehixeko atsegin duen. Oso gogorra da armiarma arraren bizitza.

Arrek gainera, emeari erakar garri izateko ezaugarriak gainean eraman behar dituzte. Orein arrek adibidez, adar ikusgarriak dituzte, zenbat eta osasun eta elikadura hobea izan, adar luzeagoak eta sendagoak dituzte. Hegazti arrek berriz kolore biziak izan

ohi dituzte, eta hau gutxi balitz oso ongi abesten dute, zenbait espezieetan dantza eta dena egiten dute. Inork ez dakiena da ordea, orein arrek eta hegazti arrek desabantaila galantak dituztela eguneroko bizitzan. Orein arrek beren adarrendandik basoko zuhaitzen artean ibiltzeko komeariak izaten dituzte, eta belardi berdearen erdian kantari eta dantzari dagoen hegazti ar kolore urdinekoak, belatz edo azeri baten bazkaria izateko aukera gehiago ditu.

Hau gutxi balitz, zenbait bizidun primitibo egoera arruntean emeak dira, ez dago arrik. Emeak beren buruak klonatuz ugalitzen dira, baina ingurunean aldatuta bat bada eta ondorengoez inguru berria egokitu behar badute, arrautzetatik portzentaia bat arrak jaiotzen dira. Ar hauek txikiak, ahulak, geldoak eta sinpleak dira, ez dira elikatzen, soilik emeak ugalitzen dituzte. Ar hauen ugalketa ostetik jaiotzen diren kumeak (emeak guztiak) gurasoengatik ezberdintasunak dituzte, ez dira klonak, eta inguru berrira errazago egokitzen dira.

Erleen kasua ere berdina da, erleen gehiengoak eme antzuak dira eta erlaontzian dauden ar gutxiak, erregina ugalteko dira. Gertuago etorri, gizakiaren enbrioia eme bat bezala hasten da garatzen, hilabete batzuen ostean Y kromosoma famatutik testosterona eratzeke informazioa ateratzen da eta enbrioia arra bilakatzeko da, beraz arra bilakatzeko, ohiko garapenaren beste bide bat da.

Makina bat aldiz pentsatu dut, arrak ez ote garen emeen munduaren arrarotasun bat!

Eta zutabetxo honek, bizidunetan (gizakia barne) arrak inoiz ez garelako izan emeak baino garrantzitsuagoak erakutsi badu... bi aste honetako helburua bete dut. Eta ez badut helburua bete, edo ez bazaizue gaia atsegin edo gai berriren bat iradoki nahi baduzue: idatzi lasai, bioaniztasunetik@hotmail.com, plazer bat baita zuen emailak erantzutea.



Maizter bila dabil udala Goibegi eraikineko enpresa gunearantzako

Jon Zubizarreta alkateak azaldu duenez, eskualdeko enpresa batentzako aproposa izan daiteke lekua

Imanol Garcia Abaltzisketa

Abaltzisketako Udala maizter bila dabil. Otsailean inauguratu zuten Goibegi eraikineko solairuetako bat enpresentzako egokitu dago, eta errentan jarri nahi dute. Jon Zubizarreta alkateak azaldu duenez, «pentsatzen dugu inguruko enpresa bat, Tolosaldekoa edo Goierrialdekoa, bertan egotea dela onena». Horregatik deialdia zabaldu nahi dute eskualdeko enpresei, interesa dutenek udaletxera jotzeko eta bertatik bertara lekua ezagutzeko.

Eraikin berriaren proiektua egitean, udalaren asmoa «enpleguaren sustapena» zen, herrian bertan enpresek aukera izatea bere egoitza jartzeko. Zubizarretak dioenez, lekuak baliabide guztiak ditu: «Argia, kalefakzioa, telekomunikazioak, sukualdea, komuna, igogailua, ezintasuna duten pertsonentzat egokitua... Leku lasaia da, ikuspegi oso politekin».

Eraikinak dituen beste baliabideak ere aprobetxatu daitezkeela dio alkateak: «Beheko solairuan auditoriuma dago. Enpresak ba-



Goibegi eraikinaren goiko solairuan dago enpresentzako gunea. I. GARCIA

tzarren bat egiteko edo aurkezpenak egiteko erabili dezake. Gimnasioa ere beheko solairuan dago eta hori erabiltzeko aukerak ere izango lituzkete enpresako kideek».

Aukera zabalak

Udala proposamenetara irekita dago. Hasiera batean enpresa bakarrarentzako pentsatuta dago, baina ez dute baztertzen bi edo

Enpresak aprobetxatu ditzake eraikinak dituen beste baliabideak

hiru enpresa txikiago aurkeztuz gero, espazioa berrantolatzea. Ekintza motari dagokionez ere, aukera zabala dagoela esaten du alkateak: «Arlo publikokoa edo pribatukoa izan daiteke, terapien

ingurukoa, kontsulta jartzeko, aholkularitzarako...».

Errentaren inguruan, aurreikuspena bost urtetarako epea eta mila euro inguru ordaintzea da, baina baldintza horiek ez daude itxita. Zubizarretak azaldu duenez, interesa dutenek udaletxera jo dezakete, «inongo konpromisorik gabe. Lokala erakutsiko genioke eta bere beharrak entzuteko aukera izango genuke».

Larunbat honetan hasiko da kultur astea bertso-kantu afariarekin

Goiazko frontoian egingo da ekitaldia eta txartelak erosteko aukera gaur bertan amaitzen da

I. Garcia Bidegoian

Larunbat honetan hasi eta hurrengo asteburura arte, kultur astea antolatu dute Bidegoianen. Egitarau oparoa antolatu dute eta ia egunero daude ekitaldiak. Larunbatean bertso-kantu afaria izango dute. Goiazko frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Afarirako txartelak erosteko gaur amaitzen da epea.

Beste ekitaldien artean, bada bat izena eman behar dena ere: patata tortilla lehiaketa. Hilaren 23an, ostirala, egingo da txapelketa hori eta parte hartu nahi duenak udaletxean eman behar du izena hilaren 20a baino lehen. Bidaniako frontoian, 19:00etan hasita, egingo dute lehiaketa, eta herriko trikitilariak girotoke dute ekitaldia.

Bi jarduerara horiez gain, beste hainbat izango dira: ipuin kontaketa, Jose Luis Kortarekin solasaldia, Interneteko arriskuei buruzko hitzaldia, haurrentzako ekitaldiak (tartean Poxpolo eta Konpainiaren emanaldia), mus txapelketa, *Xentimorik gabe* antzezlan, eta, azken egunean, azoka Goiazko plazan.

35 herritar ari dira gimnasioko makinak erabiltzen

Hainbat ariketa mota egin daitezke: pisuak altxatu, bizikletan aritu, ergometroa erabili, oinez ibili edo korrika egin...

I. Garcia Abaltzisketa

Goibegi eraikina bizia hartzen doa pixkana. Beheko solairuan dagoen gimnasioan 35 herritarrek eman dute izena. Makina ugari jarri dituzte bertan: pisuak jasotzekoak, bizikletak, ergometroa eta oinez ibiltzeko edo korrika egiteko uhalak.

Bazkide bakoitzak bere giltza du eta ordutegia erabiltzaile bakoitzaren beharretara izaten da. Jon Zubizarreta alkatea gustura

dago gimnasioak izan duen erantzunarekin: «Ondo dago 35 herritarrek izena ematea 300 biztanle baina pixka bat gehiago dituen herri batentzat».

Auditoriuma moldatzen

Beheko solairuan dagoen auditoriumean moldaketa batzuk egingo dira. Egundagoen itxituraren ordez beste bat jarriko da, auditoriumak hartuko duen lekua handituz. Horrez gain, eserlekuak eta proiektorea jartzeke daude.

Zubizarretak azaldu duenez, «obra horiek egiteko enpresen aurrekontuak jasotzen ari gara orain». Aurrera begira, besteak beste, haurrentzako filmak jartzeko asmoa du udalak. Auditoriumean 50 lagun ingururentzako lekua izango da.



Makina ugari jarri dituzte Goibegi eraikineko gimnasioan. I. GARCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan, eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukualdea, 2 aurretentzako garajea, txokoa, lorategia eta trastelekua. Interesatuak deitu 678 267 657 telefono zenbakira.

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. iAT pasatu du, osagarri asko ditu eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurkumea.** Setfer ingeles arrazako txakurkumea galdu zen irailaren 1ean, Anoetako hilerriaren inguruan. Zuri-beltza da eta bost hilabete ditu. Ikusi edo aurkitu duenak mesedez dei dezala 615 72 90 86 telefono zenbakira. Eskertu egingo da.

Irurako sanmigelek hartuko die lekukoa jaiei

Alkiza, Bedaio, Elduain, Lizartza eta Zizurkilén giro ederrean igaro dira jaiei; datorren astean Irurakoak hasiko dira

Iligo Terradillos Tolosalde

Iritsi da lasaitasuna Alkiza, Bedaio, Elduain, Lizartza eta Zizurkilera. Azken egunetan jai giroa nagusitu da herri horietan, baina behin berriko festak amaituta, ohiko normaltasunari eutsi dote. Horren aurretik, baina, asteburu paregabean izan dute bost herrietan. Egunaldi bikainak lagun durik askotariko ekintzet gozatu ahal izan dute gazte nahiz helduek; hala nola, herri kirolak, dantza emanaldiak, musika saioak, afari eta bazkariak, edota jolas zelebreak. Zizurkilgo gazteek antolatutako kasu.

Ekintzet baterik egunek bere-negun izan nuten amaiera, egunero horetasunari lekua eginez. Eta lekukoak beste herri bati emanez. Irurari, bain zuzen. Han da torren atean jaitulko da beren-gea herriariek eta berriarazten den oro festara gonbidatuz.



Alegio Sutarri dantza taldearen saioa izan zen Bedaioan ostialean. LAGUNA



Elduainen herri kirolak izan ziren larunbatean ikusgai. LAGUNA



Larribatean plazan bazkido zuten Lizartzan. LAGUNA



Zizurkilén gisa honetan amaitu zuten gazteak. LAGUNA



Alkizan ariketan lehiatu ziren herriko gazteak. LAGUNA

Gutunak

Elduaingo festen inguruan

Aurtengo herriko festetako balorazio xume bat egin asmoz, hitz batzuk besterik ez, jaiak antolatzaiek berak ematen duen buruhaustetik hasi eta momentuan egin behar den lan gutxi kontuan hartuz gero argi ikusten da, izugarriko esfortza dela lau jaiagun borbil atzetan.

Aspaldio urteen ondoren herri bazkaria antolatu eta 160

personek gora izan ginen ber-tan bazkalitzen. Sukaldean eta mahaiak zerbitzaten izan zen, beraz, lan ugari eta herriar askok hartu zuen lan eskerga honen ardura bere gain.

Patare-tortilla zein hamaiketakoak prestatu eta zerbitzatzeko ere ez zen boluntariorik falta. Toki, pilota partidak etab. ekitaldi guztietan kusi da konpromiso maila handia. Gure txiki

antzerkia ere ezin aipatu gabe utzi, urte guztiko lanaren ondorioa izan baita. Gidoia prestatu, entseguak egin, esku-lanarekin materiala prestatu... minutu gutxi-ban forma hartzen duten makina bat gauza, detaile.

Aipatutako guztiagatik balorazio oso positiboa egin behar da baina gauza guztiak bezala eta urte askotan gertatu den bezala festa hauek ere izan

dute bere alde ezikorra eta gaiztoa. Herrietako festetara bertako gauzak hausteko helburuarekin etortzen dira batzuk, eta urtero pairatu behar izaten dugu lelo hauen bidentzia.

«Persona» hauek gizatasun gutxi, adimen eskasa eta testosterona handiegia daukate. Paranda sano bat egin behar-rean, hauek, ondo pasatzeko bestelakoak egin behar izaten dituzte: tabernetako gauzak hondatu, jendea iraildu, beste-entxeetan sartu...

Elduainen herria ibili zinetenei auzeratu: zuen herrietan herria biltzen al zerate? Eta la-gunik geratzen zaizue oraindik? Ziur gara zuen herrietan ez du-zuela inolaz ezertan parte har-tzen, ez zaretela ezertan kon-prometitzen, ezta gauza bikie-nean ere. Herriko jokalariak dituenak herriarekiko eta herri-tararekiko errespeturik ez du, beraz zuentzako ere gure mes-prezurik handiena.

• **Elduaingo Kultur Batzordea**, Elduain.

Tolosa



HONDARTZAKO KIROLAK GUREAN

Pasa den urtean bezala, aurtene ere, Ezpeleta Tolosako ostalaritza elkarteak antolatu, festa berezia izan da asteburu honetan udari amaiera emateko. Rula, Plaza Berria hondartza talakaturik kusi ahal izan da, eta bertan boleibol nahiz futbol txapelketak. Gainera, tabernariak azaldu bezala, gaztetxoak nahiz helduak, laz baino jende gehiago aritu da jolasen aurtengoa. Ikusmin handia sortu du ekimenak beste behin, giro polita sortu delarik. LAGUNA

Villabona



JENDE UGARI AZOKA BEREZIAN

Hamaseigarrenet, Irintzi elkarteak antolatuta Elkagaien Azoka Berezia izan zen larunbatean. Jende ugari gerturatu zen, jakie eta artisautzaaz baterik 36 postuetara. Udalak eta Irintzi elkarteak postu onenak saritu zituen, lehen saria Felix Barcenaen egur taila postuak —Irdian— eman zuten, bigarrena Leire Ibarrolaren gazta eta ezti postuak eta hirugarrena Maider Umukuren ahateki postuak. Bestalde, Isats gisatu lehiaketa Behar Zana elkarteak irabazi zuen estreinakoz. LAGUNA

Talo Egun arrakastatsua

Aurreko urteetan baino jende gehiago izan da aurtene. Ander Irizar iruñerak irabazi du talo lehiaketa

A. Terradillos Letiza

Plazaola partzergo turistikoak antolatu eta udalak babestuta, Talo Eguna ospatu zuten herri-gun Letitzan. Gurean tradizio handia duen jai hau sustatzeko helburuz antolatutako egunak beste behin ere harrera oso ona izan zuen, eta horregatik, antolatza-leak «oso gustura azaldu dira».

Seisgarren urtez egin dute Talo Eguna Letitzan, eta aurtengoa giro apartak nahiz bertako eskaintza oparoak bultzatuta, beste

urteetan baino jende gehiago izan dela nabarmendu dute antolatzaileek. Beraz, festa honek ziurtaturik du jarraipena datozen urteetan.

Talo-egile onena Iruñeko

Goizean zehar izan ziren ekitaldi-erakunde talo lehiaketa azpi-marra daitheke. Ander Irizar (Iru-ña) geratu zen lehena, Ilenia Vi-labona (Letiza) bigarren eta Maite Bereziartua (Andoain) hirugarren.

Bestalde, ostalariek taloa ar-datz nuten plater bereziak presta-tu zituzten, eta horietan *follober-ger* denekoa alpa daitheke, tradi-ziozko jaki hau garai berriekin sartzen posible dela emakitea-gatik. Haurrek ere elerki gozatu zuten, talo talerrean edo gudi ibildakietan, estereko.



Golan, taloak egiten. Behean, herriko plaza jendez beteta. LAGUNA



↓ Emaitzak

PILOTA

XXII. JOXEAN TOLOSA
TXAPELKETAKO FINALA

Kadeteak

Olando	17
Iribarria	18

Gazteak

Jaka	18
Rezusta	10

Nagusiak

Ezkurdia	18
Arzelus	12

ARRAUNA

KONTXAKO BANDERA

Bigarren jardunaldia

1. Galizia	10:59.54
2. Getaria-Tolosa	11:03.16
3. Zumaia	11:14.98
4. Bizkaia	11:42.52

Sailkapen orokorra

1. Galizia	22:10.96
2. Getaria-Tolosa	22:15.28
3. Zumaia	22:22.08
4. Bizkaia	23:35.56

HERRI KIROLAK

AIZKORA

Gipuzkoako Txapelketa

1. J. Olasagasti	30:19
2. J. Otaegi	32:54
3. I. Azurmendi	33:59
4. J. M. Mujika	36:03
5. U. Mugertza	38:27

Gazte Mailako Txapelketa

1. Eneko Saralegi
2. Eneko Otaño
3. Eloy Corchero
4. Julen Olano
5. Joxean Etxeberria

XXIII. Zazpi Herrialdeen
arteko Txapelketa

1. Gipuzkoa	60 puntu
2. Nafarroa Garaia	59 puntu
3. Bizkaia	53 puntu
4. Araba	35 puntu
5. Lapurdi	34 puntu
6. Nafarroa Beherea	20 puntu

MENDI LASTERKETAK

Eniorea Igoera

1. J. Lizeaga	1:30:34
2. H. Ait Chau	1:32:21
3. E. Gartzia	1:41:07
10. N. Amilibia	1:47:24

Aurten ere alde egin die Kontxako Banderak Getaria-Tolosako neskei



Getaria-Tolosako neskek, ongi etorriko kalejiran, aurten irabazitako bandera guztiekin. S. GOMEZ

Hiru segundo atera zizkieten galiziarrek igandeko estropadan; guztira bost segundo galdu zituzten

Itzea Urkizu Tolosa

Malko artean lehorreratu zuten Getaria-Tolosako neskek, *Urkabe* trainerua; pasa den igandean, ezin izan zuten Kontxako Banderak eskuratu.

Lehen jardunaldian galdutako bost segundoak berreskuratzeko intentzio osoz sartu ziren ur donostiarretara Getaria-Tolosako arraunlariak. Zozketan bigarren kaletik joatea egokitu zitzaizen, eta indartsu hasi zuten lehen luzea.

Bi faboritoak, Getaria-Tolosa eta Galizia, ia batera iritsi ziren kanpoaldeko balizetara, eta Zumaia trainerua ere gertu izan zuten joanekoan. Irteeran, galiziarrek sagundo bat aurretik jarri ziren arren, estropadaren burua

askotan aldatu zen taldez, balizara bitarte. Horren erakusle izan zen ziaboga, izan ere, segundo berean eman zute Getaria-Tolosak eta Galiziak, 5:49 minutuko denborarekin; Zumaia 4 segundo beranduago iritsi ziren ziaboga puntura, baina 9 segundo gehiago behar izan zituzten, maniobra zabala burutu baitzuten. Honek tarte handiagoa eman zien bai galiziarrei, baita gipuzkoarrei ere.

Itzulerako luzean, parean ziren *Urkabe* eta *Rianxeira* ontziak, eta

norgehiagokaren unerik estue-nak izan ziren. Santa Klara uhar-tera iritsi baino metro batzuk lehenago, ordea, galiziarrek olatu txikiren bat hartu, eta hiru segundo aurretik jartzea lortu zuten. Traineru bateko aldeari eutsi egin zioten Getaria-Tolosakoek, baina behin badia barruan, olaturik gabe, ez da lan erraza errenta hori gainditzea.

Hala ere, azken txanpara arte ez zen estropada erabaki, *Urkabe* traineruak erreazio bat izan baitzuen. Segundo bat jan zioten galiziarrei, eta Olatz Aldalur patriak lehenengo kalera bideratu zuten trainerua. Bi taldeak 40 paladako erritmoan helmugaratu ziren, baina Getaria-Tolosak hiru segundo gehiago behar izan zituen.

Gauzak horrela, Galiziak 22:10 segundoko denborarekin, 2011ko Kontxako Bandera irabazi zuen berriro. Tolosarrek eta getariarrek berriz, 22:15 segundoko marka egin zuten, bi jardunaldietako denborak batuta.

Harrera arraunlari

Arratsaldean, harrera egin zieten neska arraunlari, bai Tolosan, baita Getarian ere. Denboraldi osoan irabazitako banderak astindu zituzten neskek.

Koldo Alonso zazpigarren sailkatu zen Los Arcos-eko zirkuituan

I. Urkizu Ibarra

Zona Norte Txapelketako 4. lasterketan, zazpigarren postua lortu zuen Ibarra Racing taldeko Koldo Alonsok, Series 600 mailan.

Eguraldiaren gorabeherak entrenamendu neurtuak baldintzatu zituzten, izan ere, gidariek gur-

pilak bi aldiz aldatu behar izan zituzten, lurzoru bustira eta lehorreko egokitze.

Lasterketa irteerarako laugarren postua lortu zuen Alonsok, eta lehen bi itzulietan lasterketaren buruan jarri zen. Zortzigarren itzulian, ordea, gorpila zulo batean sartu zitzaion, eta gidaria

lurrera bota zuen motorrak. Denbora gehiegi galdu zuen hemen, eta erorikoaren unean bigarren zihonari alde nabarmena ateratzen zion arren, lasterketa zazpigarren postuan amaitu zuen ibar-tarrak. Hala ere, itxaropentsu dago urriak 23ko Zona Norteko azken lasterketarako.



Koldo Alonso. DURACING

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beteteki, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubidea erabiltzea. Hala esan nahi izanez gero, idatzi behar duzu honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.- Araba etorbidea 5. beheko 20400 Tolosa, edo harrizketza@hitza.info



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** LAB jubilatuta eta pen-
siodunek batzar irekia egingo
dute gaur 10:30ean kultur etxe-
an. Ondoren, 12:30ean, enkar-
tela egingo dute.
■ **Ibarra.** Hilaren 17an, larunba-
tean, Euskal Herria Eguna ospa-
tuko dute Ibarra. Herri bazka-
rako txartelak salgai jarri dituz-
te, Danon Txokoa eta Atari
tabernetan. Helduen txartelak
12 euro balio ditu, eta haurren-
ak 6 euro.

■ **Leitza.** Euskara ikasleentzat
diru laguntzak eskainiko ditu
Leitza-ko Udalak. Irailaren 15a
baino lehen egin beharko dituz-
te eskariak ikasleek.
■ **Villabona.** Oinkari dantza tal-
dean izena emateko aukera za-
balik dago. Horretarako 660 13
93 80 telefono zenbakira deitu
behar da.
■ **Anoeta.** Urriaren 9an Euskal
Jaia ospatuko dute. Antolatze-
ko bilera egingo dute gaur
19:00etan udaletxean. Herri-
rrei gerturatzeko dei egin diete.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Lourdes Azpiroz;
Amaroz Auzoa 9, 943 67 51 18.
■ **Lekunberri.** Azpiroz MA. Ara-
lar kalea, 43. 112.

HITZA ez du bere gain hartzen
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HI-
TZA egunkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizu-
nik.

Agurrak



Zorionak!

Maria Mujika (Amezketa). Abuztuaren 10ean, 95 urte bete zenituen. Orain arte bezala jarraitu, guapa!!

Irudia Tolosa



100 URTE BETE DITU FELISA ZABALETA LEKUONAK

Felisa Zabaleta Lekuona 1911ko irailaren 12an jaio zen Gabirian.
Atzo, beraz, 100 urte bete zituen. Ibai Iriarte alkateak eta Mikel Arre-
seigor gazteria saileko zinegotziak, tolosar guztien izenean zorion-
du zuten Felisa Zabaleta Lekuona. Berarekin hitz egiteko aukera ere

izan zuten, eta harrituta gelditu ziren Felisa Zabaletaren bizkorta-
sunarekin. Berak kontatu bezala, Gabiriatik 18 urterekin etorri zen
Tolosara lanera, eta urtebete beranduago ezkondu zen bertan.
Bost seme-alaba, hiru bizirik; 12 biloba eta 15 birloba ditu egun. A. IMAZ



Zorionak!

Akeber. Zure urtebetetzea
ospatzeko lanera bueltatzea
bezaletatik ez dago, jeje!
Ondo pasa!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**



1. Saria

Bakioko Basarte
landetxean
bi pertsonentzako
bi gaueko egonaldia

2. Saria

Tolosako Karlis estudioan
argazki erreportaje bat

3. Saria

Astelena jatetxean
bi pertsonentzako otordua



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke **thargazkiak@hitza.info** helbidera

Bidali zure argazkiak irailaren 23a bitarte!